

Tartas eta Leizarraga berrikusiak, edo nola aldatzen duen historia ikertzailearen begiradak

Blanca Urgell

UPV/EHU

Laburpena

Lan honetan frogatuko dut, bi adibideren bitartez, ondo ezaguna den zerbait: ikertzailearen begiradak datu beretatik atera daitekeen ondorioa aldatzen duela. Hala bada, erakutsiko dut Tartasen Onsa hilceco bidiaren argitalpen berankorra (1666) Iparraldeko hiru elizbarrutietan (Oloroe, Akize eta Baionan) liburua zabaltzeko egilearen asmoari zor zaiola ziurrenera, eta ez eliz aztertzaileek haren edukiaz edota formaz izan zitzaizketen susmo edo eragozpenei. Halaber, erakutsiko dut Leizarraga ez zela «erraldoi bakarti» izan, baizik eta haren Testamentu Berria (1571) XVII eta XVIII. mendeetako egile euskaldunek ezagutu zutela, eta haien idazlanetan aztarnak utzi dituela, grafia eta lexiko kontuetan behinik behin. Ildo honetatik, Leizarragak Materre eta Etxeberri Ziburukoaren idazkeran izan zukeen eragina agerian jartzeko modukoak diren zenbait ezaugarri aztertuko ditugu, Leizarragak literatur hizkuntzan, eta batez ere XVII. mendeko lapurterazkoan, izan zuen eragina sakonago aztertzeraz ikertzaile gehiago aurreratuko delako esperoan.

0. Sarrera*

Ezagutza zientifikoa gainerako ezagupide nagusietatik —ezagutza artistiko eta ezagutza errebelatutik (Wagensberg 1998: 83-93)— bereizten duten hatsarre funtsezkoenetan bat objektibotasuna da, ikertzaileak ikergaitik ahal den gutzia alden du behar gisa ulertua: norberaren aurreiritziak, apriorismoa

* Lan hau «Monumenta Linguae Vasconum (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo» (MINECO, FFI2012-37696), «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (Eusko Jaurlaritzak, GIC. IT698-13) eta «Lingüística teórica y diacrónica: Gramática Universal, lenguas indoeuropeas y lengua vasca» (UPV/EHU, UFI11/14) ikerketa proiektuen laguntzari esker egina da. Aldez bederen, «Euskararen lekua munduan eta historian: mitoetatik egitateetara» UEUren 2014ko ikastaroan aurkeztu nuen, eta haren antolatzaile eta ikasleei nire eskerrik beroena luzatu nahi diet. Eskertu nahi diet, halaber, Antonio Rivera irakasleari historialariaren gogoez jabetzeko eman didan laguntza estimaezina, eta Joseba A. Lakarra eta Manu Padilla lankideei egin dizkidaten ohar zuhurrak. Ostera, nireak dira akats eta gaizkiulertuak oro.

eta emozioak alde batera utzi eta aktiboki objektibotasuna berma dezaketen bitartekoak (neurvide estandarrak, onartutako metodologia, kide arteko berrikuspenak...) erabiltzea bere burua zientziazat duen edozein ezagutza-arloren eskakizuna da, bada.

Hala ere, «ahal den guztia» horrek adierazi bezala, objektibotasuna ezin daiteke *egia*-rekin nahastu: *desideratum* bat besterik ez da, ezagutzen eta irudikapenen gainean izan dezakegun konfiantzaren edo kalitatearen adierazle bat. Izan ere, gizakiok zuzen ezagutzeko gauza garenentz eta galdera honek aspaldi sortu ditu hausnarketak eta eztabaidak, alegia, ezagutzen duguna egiazkoa denentz ala litezkeen interpretazio edo ikuspuntuetako bat baino ez. Objektuaren eta subjektuaren arteko eragina zientzia esperimentaletan ere gertatu arren, giza (eta gizarte) zientzietan are nabariagoa da, hauetan subjektua objektu bihurtzen delako, hau da, gizakiak beste gizaki batzuk ikertzean dautzalako. Esparruotan beharbada historialariak dira, XIX. mendeko mito historizistak behin hautsi eta gero, gai honetaz beren buruari gehien galdetu diotenak. Kezka honen adierazgarri dugu Historiografia, «historiaren historia», iraganari buruzko ezagutzak orainaldi aldakorren (gehi gizarte bakoitzaren) galdera eta arazoetatik edaten duelako kontzientzia erne izatea bilatzen duen gogoeta.

Honetan sakontzeko betarik gabe izanik, aski izan liteke objektibotasuna Historian hiru zutabetan oinarritzen dela gogoratzea: iturri egiazko eta egiaztagarrietan, partekatutako metodoaren zorrotasunean eta gainerako adituekiko kontrastean. Honen ifrentzuan, baina, historialariaren lanaren zati handi bat interpretazioan datza, hots, gertakarien garrantzia neurtzean eta haien arteko erlazio kausalak ezartzean (Le Goff 1997: 32). Datuen interpretazioa edo, nahiago bada, datuen gainean eraikitzen diren hipotesiak, ezinbestean, historialariaren testuinguru sozial eta kulturalak baldintzatzen ditu (*ibid.*). Historia zientifikoki egin nahiagatik ere, historialariek ez dute ahaztu ohi historia ez dela *benetakoa* inondik inora ere, «baizik eta onartutako iritzien multzoa» (Barraclough 1955: 14). Le Goff-ek dioenez (1997: 35), «la objetividad histórica se construye poco a poco, a través de revisiones incesantes del trabajo histórico, las laboriosas rectificaciones sucesivas, la acumulación de las verdades parciales» edo «...la historia es la ciencia del pasado, con la condición de saber que éste se convierte en objeto de la historia a través de una reconstrucción que se pone en cuestión continuamente» (*ib.* 29).

Izan ere, datuen interpretazioak halabeharrez badu subjektibotasunetik zerbait.¹ Hauxe da E. H. Carr-en (1961) pasarte klasikoa:

¹ Historialari askok salatu dute datuen sakralizazioa: «The belief in a hard core of historical facts existing objectively and independently of the interpretation of the historian is a preposterous fallacy, but one which it is very hard to eradicate» (Carr 1961: 12). Le Goffek (1997: 33-34) gogoratzen digu datu historikoak ere, iturri gisa erabiltzen diren dokumentuak zehatzago, ez direla material gordin, objektibo eta tolesgabe: aitzitik, eurak ere, giza ekoizpenak diren ber, euren testuinguruak baldintzatuta sortzen direnez, historialariaren (eta, erants dezadan, are aurrez filologoaren) berrikuspen kritikoaren beharrea dira.

The facts are really not at all like fish on the fishmonger's slab. They are like fish swimming about in a vast and sometimes inaccessible ocean; and what the historian catches will depend, partly on chance, but mainly on what part of the ocean he chooses to fish in and what tackle he chooses to use—these two factors being, of course, determined by the kind of fish he wants to catch. By and large, the historian will get the kind of facts he wants. History means interpretation (Carr 1961: 23).

Historiatik kanpo ere esan ohi da ikertzailearen begiradak aldatu egiten duela ikergaia edo, beste era batera esanda, erabiltzen dituen hipotesiek datu batzuk hautarazten eta besteak alde batera utzarazten diotela. Hain zuzen, hauxe da, erakutsiko dudanez, hala Tartasen *Onsaren* argitalpen berankorren kasua, nola Leizarragaren (1571) literatur hizkuntzaren saioaren patua-rena ere.

Bere gogokoa izango delakoan, lantxo hau Ibon Sarasolari eskaini nahi diot, nire maisu eta ongile handienetako bati: nigan —eta nire belaunaldiko hainbatengan— utzi duen inpronta, filologia gure egitekoari begiratzeko berak daukan modu berezi eta eraginkorra, eskaini dizkigun tresna lexikografiko ezinutzizkoak eta haren hizkuntz irizpideak zerrenda amaigabe baten aleak baino ez dira, neuk behintzat zor dizkiodanen artean.

1. Tartasen *Onsaren* argitalpen berankorra

Gai honek ez du zeresan handirik eman, baina badu bere garrantzia, ikusiko dugunez, Tartasen asmoak berreraikitzerakoan. Darricarrère (1911) ohartu zen *Onsa hilzeko bidia*ren lehen eliz baimena eta azkenaren artean zortzi urte luze pasa zirela (1657-1665), eta hortik ondorioztatu zuen argitaratzeko arazoak izan bide zituela. Haren iritziz liburuaren edukian datzake berantzearen zioa, bai baititu moraltasunaren aldetik susmagarri diren parrasteak. Funtsean, Darricarrèrek iradokitzen du Tartas, katoliko garbia izan arren, ez dela garaiko gainerakoak bezalakoa, baizik eta, nolabait ere, badauela protestantekumearen zerbitu. Hauek dira bere hitzak:

Cependant, après avoir constaté que, entre l'approbation de MM. les délégués de l'évêque d'Oloron, celle de l'évêque de Bayonne, et la dernière en date, celle de M. le curé de Mauléon, il s'est écoulé neuf années, ne doit-on pas se demander s'il n'existerait pas çà et là dans le livre en question, quelques traits ou quelques anecdotes qui —de la part des examinateurs— auraient donné lieu à des réflexions, à des observations critiques, peut-être à propos de la moralité mondaine qu'il reflète? Il est sans doute permis de faire planer quelques doutes à ce sujet, car, bien qu'il ait été fait par un prêtre catholique, cet ouvrage est tel qu'il aurait pu être conçu et écrit par un tout autre lettré basque, notamment par un royaliste ardent, qui, de zélé protestant, se serait converti au catholicisme et aurait embrassé ses pratiques austères (1911: 15-16).

Villasantek ere (1979: 93) hipotesi hori aipatu zuenetik ez zaio garrantzi gehiago eman, dakidalarik, azkenotan Salaberri Muñoak (2002: 86) gaia berrartu arte. Aditu honek Darricarrèren ikuspegia onartu eta gaineratu dio *Onsako* autoritate-mailakatzea ere heterodoxoegia dela, paganoetatik hasten baita, Elizak gomendatu ez bezala.

Ez naiz nor moral zein erretorikaren aldetik hipotesia eztabaidatzeko, baina, iragarri bezala, uste dut Tartasen adibide hau ona dela ikertzaileak begien aurrean dituen datuetatik zeini erreparatu eta horrek bere hipotesia nola baldintzaten duen erakusteko. Izan ere, Darricarrèren hipotesia egiazko datu egiaztagarrietan oinarritua da, behar denez, baina ez *datu guztietan*. Hona hemen *Onsaren* atarian ageri diren baimenen sinatzaileak:

A. de Conget, Atarraçeco erretor eta Çuberoa herrico Vicario generala eta Officiala (1657)

D. Irunberri, Utziatenco prioria eta Aqiçeco Vicario generala eta Officiala (1659)

Ioanes, Baionaco Apespica (1665)

Datei bakarrik begiratu beharrean eliz baimenak nork edo zeren izenean eginak diren aintzat harturik ondorioa oso ezberdina da: sinadurok garden adierazten dute Tartasek Iparraldeko hiru elizbarruti zaharren baimenak erdietsi zituela, erdietsi ere, lehenik berea, Oloroekoa, gero Akizekoa eta azkenik Baionako apezpikuarena berarena. Hau ez da ohikoa: areago, hiruren baimenekin irten zen liburu bakarra da, oso oker ez banago.² Beharbada, beraz, argitaratze berankorra bere elizbarrutitik kanpo harrera lortu beharrari egotz dakiok. Ez dakigu Akizeko bikarioaren eta Baionako apezpikuarengana nola iritsi zen,³ baina bai zergatik: bistan da hiruretan nahi zuela liburua zabaltzea eta, honezkero, ondoriozta dezakegu Iparraldeko euskaldun guztientzat idatzi zukeela. Hau kontuan harturik, bada, aski bestela uler daitezke «irakurtzaliari» idatzi zizkion hitzok:⁴

Ene euskara, eta lengajia eztaikit aprobatia izanen denez, bai, ala ez, badu orotarik zerbait, Zuberoak, Basanabarrek eta Lapurdik eman drauko zerbait,

² Tartasen bigarren liburua bera (*Arima penitentaren occupatione debotaq*, 1672) «Bon-necase Maulioko Erretora», «Fr. Nicephore Capucin» eta Arnaud François de Maytie Oloroeko apezpikuaren oniritziarekin irten zen, ohi bezala.

³ Etxagibelek (2014: 283) frogatu du badirela kidesasun lexikoak *Onsa* eta *Philotea*-ren artean: honek esan nahi luke, berak dioenez, Pouvreaux bere itzulpen horren eliz baimenaren data (1662) baino lehen ezagutu zukeela *Onsa*-ren eskuizkribua, Tartas Baionako onespeneren bila bide zebilen garaian, hain zuzen, eta agian onspen horren gauzatzean balukeela zerikusirik, artean Olze apezpikuarekiko harremanak gaiztotu gabe baitzeudekeen.

⁴ Batez ere Axularren pasarte baten alderantzizkatzea izateagatik ezagunak: «Baldin egin babiliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta, eta ez euskarak» (*Gero* 19).

baina ez oro. Aruen egin dut neure pieza pobria: hanko lengajia ezpada aski eder, hanko euskarak du ogena, eta ez euskaldunak.

2. Leizarragaren literatur hizkuntza saioaren patua

La tentativa de Leizarraga no tuvo las consecuencias que hubiera podido tener para la fijación del vasco literario, las que la traducción de la Biblia ha tenido en tantos países: se hundió con el fracaso de la penetración protestante en el país. Por más que se debieron hacer crecidas tiradas de sus versiones, que sabemos fueron conocidas por autores posteriores (Pouvreau, sacerdote católico, se valió mucho del Nuevo Testamento para su diccionario), su carácter heterodoxo les privó de toda posibilidad de influencia en la literatura posterior. Con la rica floración de escritores católicos en el siglo siguiente, el tipo de lengua por él establecido fue sustituido por otro, mucho menos arcaico, más popular y accesible, y también más teñido de particularismos locales: el labortano de Sara y San Juan de Luz (Mitxelena 1960: 51-52).

Hitzotan laburbildurik dago —eta neurri handi batean oinarriturik— Leizarragaren obraren patuari gure garaian eman zaion interpretazioa. Duela gutxi arte, eta orain ere maiz, ziurtzat jotzen zen Euskal Herriko protestantismoaren porrotaren ondorioz alde batera utzi zela haren literatur hizkuntza saioa. Alde batetik, nabaria da lapurtera klasikoko egileek beste era batera idatzi zutela, Mitxelenak berak dioenez. Bestetik, inplizituki bederen jakintzat ematen zen⁵ Leizarragaren obren aleak atzerrian baino ia ezin aurki zitezkeela, erre nahiko lituzketen katolikoek eskuetatik atzerrira ihes egindako protestanteek ozta-ozta salbaturik.⁶ Labur bildurik, Leizarraga «erraldoi barkartia» zen, ez aurrekaririk, ez ondokorik izan ez baitzuen (Villasante 1979: § 50; ikus, halaber, Juaristi 1987: 42; Knörr 1996: 134-136; Urkizu 2000: 146-147; Aldekoa 2004: 44, etab.).

*Opinio communis*aren ezin adierazgarriagoak dira Salaberriren hitzok, nahiz egiazki bera izan den ikuspegi hau desarmatzen lehena, laster ikusiko dugun bezala:

Tradizio motza egina zuen euskal literaturak, jakina, 1545ean hasi baitzen Etxepareren obrarekin. Jaio berria, beraz: ehun urte baino gutxiagoko ibilaldiko letrak aurkituko zituen urdazubiarrak [Axularrek] bereari ekin zio-

⁵ Beharbada Vinsonen (1891-1898: 18) hitzotan oinarriturik: «Dans le pays basque, je ne connais plus aujourd'hui qu'un exemplaire du Nouveau Testament...», eta batez ere honegatik: «...la traduction de Liçarrague est incontestablement une traduction calviniste (...). C'est parce qu'il était *heretique* que le livre de Liçarrague est devenu si rare» (*ib.* 20).

⁶ «...antes de su promulgación [Fontainebleauko ediktuarena] habían sido arrebatados de las manos de los protestantes los Nuevos Testamentos, así como los demás libros de la Reforma traducidos al Euskara; no pudieron salvar más que algunos pocos documentos» (Olaizola 1993: 254).

nean. Horrezaz gainera, urria: *eredutzat inolaz ere ezin har zitekeen Leizarraga* erreformistaren itzulpenetik landa, gutxi batzuk baino izan ez zirelako Axularren aurretikoak (Salaberri 1997: 66; azpimarra nirea da).⁷

Esan gabe doa Leizarragaren eragina ez dela izan Bibliaren beste itzulpen batzuek garai bertsuan idatziz landu ziren Europako hizkuntzetan izan zutenaren heinekoa. Beraz, dudarik ez dago erlijio gatazkak erabateko eragina izan zuela haren lan handiak literatur euskararen eraikuntzan izan zezakeen oihartzunean. Alabaina, une honetan ezarritakotzat jo dezakegu XVII. eta XVIII. mendeetan ez zela ezohikoa Ipar Euskal Herriko elizgizonek behinik behin Leizarragaren obra eskura izatea —isil-gordean balitz ere— eta, hortaz, gure premisa ezin izan daiteke haren eraginik eza. Ondoko lerrootan ondorio honetara abiapuntu batetik bestera nik neuk egin dudana ibilbidea azalduko dut, zeren eta Lardizabalen hitzez baliatuz, *Zertako, bada, zure anaiaren begian lastoa dakusu, eta zure begiko aga ez?* Berriro ere begien bistan ziren datuak alde batera nola utzi ditugun erakusteaz gain, Leizarragaren eraginean doi bat sakonduko dut, hurbilketa bat besterik ez, ondokoek ildoari etekin gehiago ateratzen jakingo dutelakoan.

Iparraldeko idazleek Larramendiren (1745) hiztegian zer-nolako sarrera izan zuten aztertzerakoan, Materre eta Leizarragaren arteko batetortze lexiko harrigarri batzuk azaleratu ziren (Urgell 2000: 776-777). Batetortze horiek nola edo hala bide ematen zuten ea Axularren liburuan diren Testamentu Berriko pasarteek Leizarragaren itzulpenarekin zerikusirik ote zuten begiratzeko eta, ustez ustekabea, bertatik atereak direla egiaztatu nuen neke handirik gabe, haren hizkera eta idazkerara egokituak badira ere,⁸ hurrengo adibideak aditzera ematen duen bezala:

Leiz: *Nahi duc bada goacen eta bil deçagun hura?* (Mt 13, 28)

Ax: *Nahi duçu bada goacin, eta gaixto hura (...) vil deçagun* (Gero 120).

Aurkikuntza txundigarri hori aurkezterakoan (Urgell 1999) Iñaki Camino irakasleak adeitsuki jakinarazi zidan —*mea maxima culpa*— horrelako zerbait aurretiaz Salaberrik tesian frogatua zuela. Hauxe, zehazki:

⁷ Oharrean dioena ere kontuan hartzekoa da: «Gogoratu beharrik ere ez dago Leizarragarena bezalako esperientziak espreski debekatutak zituela eliza katolikoak, eta ez bakarrik haren disidentzia erlijiosoagatik: «Como la experiencia aya enseñado, que de permitirse la sagrada Biblia en lengua vulgar, se sigue, por la temeridad de los hombres, mas daño que provecho, *se prohibe la Biblia con todas sus partes impresa, o de mano, en qualquier lengua vulgar, i assi mismo los Sumarios, i compendios, aunque sean historiales, de la misma Biblia, o libros de la Sagrada Escritura, escritos en aualquier idioma, o lengua vulgar*» (*Index librorum prohibitorum*, 3. or.))» (*ib.* 61. oh.; azpimarra berea da).

⁸ Adibidean ikusten den bezala, Axularrek inoren aipuetan erabili ohi duen *amplificatio*-a bazarabil Leizarragarenetan ere (cf. Salaberri 1997: 169 eta, Axularren ezaugarri honetaz oro har, *ib.* 242-245).

Bestalde, Leizarragaren obrak 1571koak zirela kontutan harturik, Axularrak, Materrek bezalatsu, ongi ezagutu zitzakeen harenak, eta testuen arteko konparazioa egitean azalduko dugunez, badirudi, aurkitu uste dugun kides-tasun zenbaiten arabera, zuzen-zuzenetik ezagutu zituela gainera (batez ere *Testamentu Berria*-ren hitzaurrea) (Salaberri 1997: 166).⁹

Bestalde, honek *Gero*-ko kides-tasun gaia sakonki aztertua zuen, tesian material guztia erabili ez bazuen ere, eta behin betiko frogatu zuen handik gutxira argitaratu zuen lanean (Salaberri 2000), besteak beste huts batera-zaile bat, eman daitekeen frogarik sendoena, seinalaturik.¹⁰

Leiz: *Han içanen da nigar eta hortz garrascots* (Mt 8, 12).

Ax: *Han içanen dela nigar, eta hortz carrasc-hots* (*Gero* 585).

Ax (latinez): *Ibi erit fletus & stridor gentium* [sic, *dentium*-en ordez].

Leizarragaren bi irakurle eta erabiltzaile genituen, bada, lapurtera klasi-koko idazle garrantzitsuenen artean. Honen kariaz derrigorrez gogoratu behar haren erabileraren zantzu ziur gehiago bazirela, orduraino anekdota huts be-zala tratatuak eta, beraz, Leizarragaren saioaren uestezko porrotaren hipotesia ezertan ere aldatzeko behin ere aintzat hartu ez zirenak.

Aspaldi da ezaguna, batetik, Leizarraga Pouvreauren hiztegiaren iturrieta-ko bat dela, «L.» eta «Liz.» bezalako laburduez aitortua A eskuizkribuan, eta hitzak ez ezik haren aipu osoak ere ugari direla bertan (Urquijo 1909: 517). Arestian frogatu da, gainera, Leizarragaren idazki guzti-guztiak baliatu zituela (Etxagibel 2014). Egiantzekoa da Pouvreau Leizarragaren obren ale baten jabea izatea: haren eskuizkribuak gorde dituen Colberten liburutegian zena (Vinson 1910: 139), hain zuzen.

Bestetik, eta hau ere ezaguna zen (Vinson 1891-1898: 19), Larramendik atal oso bat eskaini zion Leizarragari hiztegiaren hitzaurrean («Del Nuevo Testamento en Bascuence», 1745: xxxvi-xxxviii), eta Madrilgo Academia de la Historian haren paperen artean Testamentuaren zati baten (Mt 25, 26 artekoa) eskuzko kopia gorde da. Ezaguna da, halaber, garrantzia kendu ziola itzulpen protestante izateari: «Por lo demás, no se puede conocer que sea calvinista el

⁹ Zehazkiago, Salaberrik tesian frogatu zuen Leizarragak baduela *Gero*-ko gomendiozko gutunaren eta «Irakurtzaileari» atalaren *inventio*-an parterik (*ib.* 167-172), zeren eta harilkatzean ez ezik hitz eta esamolde zehatzetan ere sumatu baitzituen kides-tasunak bien artean (*ib.* 168, 211. oh.).

¹⁰ Agerian denez, kontraesan bat dago Axularren latinezko bertsioaren eta euskarazkoaren artean, Leizarragaren pasartea horretaz erreparatu gabe kopiatu izanaren adierazle, nonbait (Salaberri 2000: 196). Zehaztu behar da *stridor gentium* ez dela Axularren akatsa («...ala liburua apailatu eta zuzendu zutenena?», Salaberri *ibid.*), baizik eta Vulgataren irakurketa ezagun xamar bat, adibidez John Major-en *In quatuor Evangelia expositiones luculent[a]e...* delakoan (1528) ere aurki daitekeena, besteak beste. Egiatzki Leizarraga eta Axularren euskarazkoari «zuzenketa bateratzai-lea» deitu beharko genioke, horrelakorik balego, bertsio kalbindar guztiek zuzenduta baitakarte Calvinoren lehen bertsiotik bertatik (Lakarra a.e.).

traductor, que está a mi entender muy ajustado en su traducción» (1745: xxxvii). Bestela ere nabaria da Larramendik Leizarragaren itzulpenari eman zion lehen mailako garrantzia: hiztegiko literatur iturri garrantzikoena bide da (Urgell 2000) eta, besteak beste, sarrera batean bere izenaz aipatua den euskal idazle bakarra (s.v. *placa*; Urgell 1998: 401) eta agerriki hitzberrigintza eredutzat hartutako bakarra (*-kide* dela eta; Urgell 2005: 259) ere bada. Bestalde, Leizarraga da, itxura guztien arabera, andoaindarrak Hegoaldeko literatur hizkuntzan <tz> txistukari afrikatua adierazteko ekarri izanaren eredu zehatza,¹¹ lapurtera klasikoan erabili zen <tç>, <tc>, <tz> sistema hirukoitzaren ordez.

Testamentuaren kopiari ezarri oharrean (1761) Larramendik diosku Gaztanbide izeneko Baionako katedraleko kanonigo baten alea erabili zuela (Tellechea-Idigoras 1966: 175-176). Ale hark Testamentu osoaz gain Erreginaren gutuna eta «Testamentu Berrian diraden icen propri Hebraico eta Greco batzuen declarationea» ere bazituen, baina ez gainerako atalak, nonbait (Urgell 2005: 254-255).

Pouvreau eta Larramendi apaiz katolikoan erabilera arazo gabeko eta oparoari, iduriz, behar bezalako garrantzirik eman ez zitzaizolarik, Leizarragari buruzko ikuspegia ez zuen aldatu, azkenik, ezta Ruiz Arzalluzek (1987: 716-717) erakutsi izanak Haranederrek tarteka bederen eredu gisa erabili zuela Testamentu Berriaren lehen itzulpen katolikoa (c. 1740) egiterakoan. Izan ere, aspaldi ezaguna zen (Vinson 1891-1898: 19), berebat, Haranederrek bere izenez aipatu zuela hitzaurrean:¹²

Eguia da, bada, Joannes Leizarraga ceritçan Beracoizco (sic) aphez edo erretor cen batec noizbeit aspaldi imprimaraci içan çuela Testament berrico liburua, berac escararat itçuliric; baiñan nola dohacabe hura, erreligione catholica eta eguiazcoa utciric, orducotz ja itçulia baitcen bera Calviñen secta içurritaturat eta haren heresia poçoatuaz cutsatua, ecin guelditu da bere obrari iretchequi gabe cembeit lekhtuan berac hartu içan çuen içurritic (...); eta hala, beldurrez ecen, cembeit arima fidelec (...) jan ez deçan guiçon etsai eta dohacabe harc han barrayatu içan duen poçoatic ere, gure jaun Aphezpicuac (...) desiraturic diocesa huntaco cembeit aphecec Testament berrico liburu sacratu hau escararat garbiqui eta fidelqui itçul deçaten, entseyatu içan gare... («Aitcin solhasa», Altuna 1990: 1-2).

Euskalgintzan erabilitako ale hauetaz gain,¹³ Vinsonek Euskal Herrian ziren beste lau aleren berri eman zuen. Alde batetik, Fleury Léclusek (1826:

¹¹ Cf. Lakarra 1985: 243 eta Urgell 2001: 143-144, non oraindik ez den ideia hau bere horretan zabaltzen. Ostera, <ts> erabiltzeko eredu gisa Axular aipatu zuen (Urgell 2001: 143).

¹² Vinsonek (1891-1898: 18) ezagutu zuen Haranederren alea, bere eskuzko *ex libris*-a baizena: 1851n Ithurrondo delako Martxueta bategandik hartu zuen M. P. Pagadoy-k, eta honengandik orduko jabea, zeinaren izena esataltzen duen.

¹³ Le Dauphin itsasontziaren gutunetako batean (1757) Francha Barrere andreak —bestelako ezaugarriengatik ikasia zela erakusten duena— ebanjelioaren aipu bat dakar (Mt 3, 10), argitarara-

18-21, ap. Vinson 1891-1898: 18) berea bertan lortu zuen, zeren baitio zor diola: «...à la complaisance réunie de M. le supérieur du grand séminaire de Bayonne (l'abbé Darrigol) et de M. le vicaire de Hasparren». Bestetik, Jean Robin (1738-1821) euskaltzale eta kopiagile ezagunak aipatu «Testamentu Berriaren ale osoa» eta beste bi ale, horiek ere denak Leizarragaren lanaren aleak ziratekeela iradoki zuen Vinsonek (*ib.* 21-22): bat Robinek berak ikusia («un exemplaire entier du d. Nouveau Testament qui à la fin avoit le catéchisme de Genève aussi traduit»), biga XVII. mendearen bukaeran Baionako kaputxinoetan erre zena («On le tient du Capucin même qui la jetta au feu») eta heren, «On l'a cru d'autant plus facilement qu'on étoit déjà instruit qu'un pareil ouvrage existoit chez M. Narbaïtz, curé de Baigorri».

Berriro lehengora gatoz: ikertzailearen begiradak erabakitzen du zein datu diren funtsezkoak eta zein ez, den-denak begien aurrean izanik ere, batzuk aukeratzen baititu, eta besteak albora uzten, eratzen ari den edo erabiltzen duen hipotesiaren barruan. Kasu honetan hipotesi estandarren aurkako datu pilaketa nahikoa izan ez, eta datu berri ezin esanguratsuago bat —Axularren erabilera— behar izan da Leizarragaz geneukan irudia aldatzeko, edo aldatzen hasteko behintzat. Honen guztiaren arabera, bada, lehengo ideiak alde batera utzita abiatu beharko ginatke, zerotik bezala, Leizarragaren eraginaren zantzuen puzzlea osatzerakoan. Hemen saio apal bat baino ez dut egingo: zehazki, eztabaidatu nahi nuke Materre eta Etxeberri lapurtera klasikoaren bi aurrekarietan badenentz Leizarragaren aztarrenik, literatur tradizioa, non-nahi ere dela, ahal dela aurrekoen lorpenetan eraiki ohi dela edo, bestela esanda, idazketa irakurketan finkatu ohi dela oinarritzat hartuta.

2.1. *Leizarragaren balizko eragina Materreengan: grafia eta lexikoa*

Materrearen dotrinaren lexikoan Leizarragaren eraginik egotea, 90eko hamarkadan harrigarri zirudiena, zeharo egiantzeko bihurtu da ikusiak ikusirik. Haatik, grafiatik hasi behar dela konturatu naiz denborarekin.¹⁴ Izan ere,

tzailleek Leizarraga eta Haranederren itzulpenekin konparatzen dutena, ondorio garbirik atera ezinik (Lamikiz et al 2014: 64), agian emaztekoa buruz aipatzen ari zelako. Nolanahi ere, ondoriozta daiteke Barrere andreak euskarazko ebanjelioak eskura zituela eta, Haranederrena luzaz inprimatu gabe izaki, ez da zorakeria pentsatzea, ikusiak ikusirik, Leizarragaren ale bat zatekeela.

¹⁴ Badugu aurrekari garbi baina isilean utzitako bat: «Lapurtera zaharren bidejorrtzaile» deitu zion Pikabeak Leizarragari (1993: 287, 1. oh.). Izan ere, ohar xume batean, eta bestela bezala, oso ideia garrantziko batzuk eman zituen: «[Leizarragak] ...lapurteraren tradizioak mendeetan zehar erakutsiko dituen berezko ezaugarriak ere, neurri adierazgarri batez behinik behin, aurreratu egingo ditu (...). Honela, grafia kontuan —*baikara, baikaude*, e.a. idatziko du (...)—, nahiz morfologia arloan (...), edota hiztegiaren esparruan (...), lapurtar klasiko baten itxura osoa erakutsiko ligukeen. Lanaren osotasuna kontuan hartuz oso oker ote geundeke, beraz, Leizarragaren hizkeraren ehuneko hogeia edo lapurteraren tradizioari dagokiola bete-betean esango bagenu?».

Eliza katolikoak Trento ondoren —batez ere erro sakonak botea zen protestantismoari aurre egin beharrez— abian jarritako ofentsibaren auresku idatzi bide zuen Materrek (cf. Oyharçabal 1996: 62) ez zeukakeen, dakigularik, Etxepare eta Leizarragarenez beste eredu zehatzik. Iparraldeko grafia zaharraz egin zuen tesian Mujikak (2002) eman datuak argi berri honetara begirata ura bezain gardena da Materre Leizarragarengan oinarritu zela hots bereizienetan, hau da, txistukari eta herskari hasperendunetan behintzat.

Txistukariei dagokienez, derradan bidenabar ezen, egiantz handiz, Leizarragak bere aldetik Etxepare izan zukeela eredu,¹⁵ zeren eta beskoiztarrak, itxuraz, garaztarrak afrikatuak adierazteko erabili zituen grafemarik bereizgarrienak (<ts> eta <tz>; cf. Lafon 1951: 311) orokortu baitzituen.¹⁶ Honetaz dena dela, ezaguna da Leizarragak sistema trinko bat sortu zuela, txistukarien arteko oposaketak ongi eta aise islatzen dituena, eta Hegoaldean garai bertsuana eta gero ere afrikatuak frikariatatik bereizteko oro har izan zen arreta gutiarekin kontrastean dena. Materrek —edota inprentak— Leizarragaren arabera jokatu zuen, salbu eta honetan, alegia, <tz> denetarako erabili beharrean, hark bezala, frikariatiko grafema banaketa klasikoari heldu baitzion, testuinguruaren arabera <tç>, <tc> eta <tz> erabiliz, gerokoek ere egingo zuten legetxe. Ondorioz, duda izpirik gabe esan daiteke Leizarragaren sistema dagoela lapurtera klasikoak garatu zuenaren azpian.

Are nabariago dateke herskari hasperendunen adierazpena, ondoko ia guztiek honetan Materrengandik aldenduko baitziren.¹⁷ Izan ere, Leizarragak <pp>, <th> eta <k> baliatu zituelarik, Etxeparengandik urrun (<pph>, <th>, <qh>), hori bera da funtsean Materrengandik aurrera <ph>, <th> eta <kh> grafema analogoak hobetsiko baituzten ere.

Lexikoaren esparruan saio bat egin dut Oyharçabalek (1996) bildu Materrengandik 181 hitz eratorriekin: haietatik 78 (% 43) baziren lehendik Leizarragaren testuetan, gehien-gehienetan forma beraren pean. Emaizta ez da eraba-

¹⁵ Bestela azaldu berri dute kontua Arcochak eta Lakarrak (2014), Leizarragaren hautu berri-tzaileak (<k> [kh] adierazteko, <ts>, <tz> eta <tch> afrikatueterako) frantsesaren gramatizazioan hain garrantzizkoak izan ziren gramatikagile eta inprimatzaille protestanteen gogoetatik abiatu-rik eginak direla. Egia esanda, baina, ez zait iruditzen hipotesi kontrajarriak direnik, elkarren osagarriak baizik.

¹⁶ Datu zehatzen bide honetatik bakarrik uxa liteke, behin-betiko uxatzerik balego, Etxeparengandik liburuaz egin zuen ala ez aspaldi darabilgun zalantza (laburpen baterako, ik. Zulaika 1999: 42-44).

¹⁷ Dirudienez, Bela eta Zalgize higanotez gain (nola ez?), gainerakoetan Pouvreau da Leizarragaren sistemari honetan atxiki zitzaion bakarra (cf. Mujika 2002: 183-184, eta Etxagibel 2014).

¹⁸ Materrek <ph>, <pp> zein <pph> erabili zituen, batetik, eta <k> zein <kh> (Mujika 2002: 183-184), baina ez dakigu grafema bakoitza zein neurritan. «Euscaldunei» atalean behinik behin <pp> (*appur*) eta <k> (*ikasteco*, *ikassia*, *ikus*, *bekaiztuco*) grafemaz besterik ez dago, eta berbera gertatzen da eliz baimenetan, hala Axular nola Guillentenarenean (bietan *Ikussi*).

kigarri, agerian denez, baina bai aski adierazgarri, hizkuntza orotan idazkera jasoa eta eratorrien ugaritasunaren artean den erlazio hertsia dela eta (Sarasola 1997: 635; Blanco 2014: 34):

aberatstasun (Leiz *abrastasun*), adimendu, adiskidetasun, banoki, barkamendu, barkatzaile (Leiz *barkazale*), batasun, begirale, beldurtasun, bereziki, bidezki, biltzarre, biluzgorritasun, botheretsu, desoneski (Leiz *desonestki*), edari, egiati, egiazki, egile, emaille, emetasun, erakusle, eritasun, erraille, errealki (Leiz *realki*), espiritualki, ethorkizun, etsaitasun, ezkonza, faltsoki (Leiz *falsuki*), falseria, fermuki, fermutasun, gaixtakeria, gaixto, gaizki, gathibutasun, generalki, gidamendu, gidari, gobernari, goratasun, guthizios (Leiz *guthizioso*), handirasun, handitasun, haserretasun, heriotze, herstura, hobekiago, iaki, iakintsun (Leiz *iakinsu*), irakurzaille (Leiz *irakurzale*), konplimendu, konplutuki, komunzki, konsentimendu, konsolatzaile (Leiz *konso-lazale*), kontentamendu, kreatzaille (Leiz *kreazale*), langile, liburutto (Leiz *liburutxo*), manamendu, merezimendu, onhasun, ontasun, orhoitzapen, osasun, osoki, pagamendu, pensamendu, prinsipalki, sainduki, saindutasun, salbamendu, salbatzaille (Leiz *salbazale*), urrikimendu, zerbitzari, zuhurtzia.

Oso zaila da hitzon artean Leizarragak eta Materrek bakarrik erabili dutenik kausitzea, dela euren hurbiltasun linguistikoagatik, edo dela hemen agerian jarri nahi den ikuspegiagatik, hots, biek sortu zuten literatur tradizioagatik, den-denak lapurtera klasikoko gainerako idazletan ere aurkitzen baitira. Bakanen artean azpimarratzekoak dira, dena dela, biez gain Pouvreauk bakarrik baliatu zituenak (*biluzgorritasun*, (*er*)*realki*, *ezagutze*, *fermutasun*, *gidamendu* eta *konsentimendu*) eta hiruroz gain Axularrek bakarrik baliatua: *guthizios(o)*.

Honegatik, nire ustez, orain ere ahozkotasunari edota halabeharrari erraz ezin egotz dakizkiokeenak lirake frogarik garbienak, hala nola ‘oinarri mailegatua + euskal atzizkia’ egiturak (*fermutasun*, *flakotasun*, *gathibutasun*, *girstinotasun*), edo ‘izen abstraktua + -tasun/ -mendu’ eratorri hiperkarakterizatuak (*haserretasun*, *beldurtasun*, *gidamendu*, *urrikimendu*) edota lekukotasun urriko eta ezohiko formakoak (*biluzgorritasun*).

Hain liburu ezberdinak izanik, ez da erraza bien arteko harremana bermatuko lukeen pasarterik edireitea. Dena dela, aipatutako hitzek pare bat eskaini dute, bilatu gabe aurkituak, beharbada Leizarragaren irakurketaren oihartzun litezkeenak: *çareten prophetizatzer a guthicioso* (Leiz 1 Cor 14, 39) eta *ongui eguitera guthicios* (Mat 153); *communzqui deitzen da Eliçaco Troncoa* (Leiz 1213) eta *comunzqui Eliç a Catholica deitcen dena* (Mat 66).

2.2. Leizarragaren eragina Etxeberrirengan?

Etxeberri Materre eta Axularren artean dago kronologiaren aldetik. Agian bera da, bada, hautagairik onena Sarako eskolakoan artean, Leizarragaren lo-

rratz zuzenak inon gehiago bilatzekotan. Leizarragak bere hizkeraz zabalago bat eta, zehazkiago, zenbait ezaugarritan ekialdera begira zegokeena baliatu nahi izan zuelako uste hedatuaren alde —hedatua da oso, baina ez da sekula xeheki aztertu, gero ageriko denez— bi ezaugarri aipa litezke, besteak beste: **iron* laguntzailea (Schuchardt 1900: 85) eta, zein ere den partizipioa, geroaldia jabego-genitiboaz egitea. Bi ezaugarriok erabili izan ditut urtetan Etxeberrik ere beskoiztarraren eragina jasan zukeela ikasleei erakusteko. Hemen berraztertu nahi nituzke, azkenotan haien hedadura dialektal eta historikoaz egin diren aurrerapenen laguntzaz.

Ezin ezagunagoa da ekialde zabalean partizipio prospektiboa *-(r)en* jabego-genitiboaz markatzen dela. Ordea, eremu osoa ez da bat: «Zenbat eta Ekialderago jo, orduan eta hedatuago dago *-en* honen erabilera, eta hizkera batzuetan (baina erabilera hau ez dago aurrekoa bezain hedatua) *-en* morfema agertzen da adizki guztiekin, aurreko morfema bokalez bukatutakoan ere, *-r-* tartekoa sartzen delarik orduan: *sarturen, etorriren, e.a.*» (Euskaltzaindia 1997: 116). Erabilera zabalago hau badirudi atzeraka joana dela ekialderantz. Gaur egun, «bokalez bukatzen diren aditz nagusietan, Nafarroa Beherean ez d[a] arrunta Zuberoan ohikoagoa den *-tu = -i + -ren* lotura, ezta Amikuzen ere; bildu datuetan, Alduden *adituren* dugu (1911), Baigorriko kantu batean *ikusiren* eta Aturrialdeko Beskoitzen *joon diat* ‘joren diat’; aldaera hau Hazparnen ere bildu da (Epelde 2003: 306)» (Camino 2004: 472). Alabaina, XVIII. mendera arte Nafarroa Beherean barrena ere ondo zabaldua zen (Camino 2008: 118).¹⁹

Honetan Etxeberrik ekialde murriztekoa balitz bezala jokaten du, sarrri *-(r)en* baitu era guztietako partizipioekin, baina zalantzaz, bietara ematen dituenak ere ugari ditu eta; hona *-n* amaieradunez beste partizipioen adibide batzuk, liburu bakoitzean zenbat agerraldi dituzten zehaztuta, aliritzira hartutako lagin zabal batean:²⁰

soilik *-(r)en*: *higitu* (M 4, E 1), *hil* (M 7, N 3, E 1), *isuri* (M 1), *largatu* (M 2), *masakratu* (N 1), *pagutu* (N 1), *sentitu* (M 4, N 1)

bietara: *aitortu* (*-ren* M 6, E 1; *-ko* N 1, E 3), *aldatu* (*-ren* M 3, E 1; *-ko* N 1), *altxatu* (*-ren* M 8, N 4; *-ko* M 1, N 2, E 3), *begiratu* (*-ren* M 1, N 1; *-ko* M 1, E 6), *bete* (*-ren* M 2; *-ko* M 3), *bihurtu* (*-ren* M 5; *-ko* N 2, E 2), *bizi* (*-ren* N 1; *-ko* M 2, N 1), *ekarri* (*-ren* M 2; *-ko* M 2, N 2), *erakutsi* (*-ren* M 2; *-ko* N 3, E 2), *erre* (*-ren* M 1; *-ko* M 1), *eskañi* (*-ren* M 1; *-ko* N 1), *etorri* (*-ren* M 9; *-ko* M 1, N 7, E 6), *ezagutu* (*-ren* M 1, N 1, E 1; *-ko* N 1, E 1), *gelditu* (*-ren* M 3; *-ko* N 1, E 1), *hartu* (*-ren* M 5, N 1, E 2; *-ko* M 2, E 4), *iaiki* (*-ren* M 2; *-ko* M 1, E 1), *iarraiki* (*-ren* M 4; *-ko* M 2, N 1), *iautsi* (*-ren* M 2; *-ko* M 7, N 5, E 6), *ibili* (*-ren* M 2; *-ko* M 2, N 1, E 2), *iduki* (*-ren* M 8;

¹⁹ Padillak (2013b: 342-345) poliki aztertu du *-ko* partizipio prospektiboaren sarrera ekialde murriztean, bai eta hipotesi interesgarri bat garatu ere hura azaltzeko.

²⁰ Adibideak *Euskal Klasikoen Corpusetik* hartu ditugu. M = *Manual debozinezkoa*, N = *Noelak* eta E = *Elizara erabiltzeko liburua*.

-ko N 1, E 6), *iharrosi* (-ren M 3; -ko N 1, E 1), *ikusi* (-ren M 13; -ko M 2, N 3, E 5), *ilki* (-ren M 5, E 1; -ko M 4, N 1), *irakatsi* (-ren M 1; -ko N 1, E 3), *itzuli* (-ren M 8; -ko N 4, E 2), *iuiatu* (-ren M 2; -ko M 1, N 1, E 1), *kantatu* (-ren M 1; -ko N 1, E 2), *laudatu* (-ren M 5, E 1; -ko N 2, E 1), *libratu* (-ren M 1; -ko N 1), *mintzatu* (-ren M 4, N 1; -ko M 3, N 2, E 3), *nahasi* (-ren M 2; -ko M 1, E 1), *ohoratu* (-ren M 1; -ko N 1), *utzi* (-ren M 1; -ko M 3, N 2, E 2) soilik -ko: *berezi* (N 1), *deitatu* (N 1), *distiatu* (N 1), *erabili* (N 1, E 1), *garaitu* (M 1, N 1), *gatzatu* (N 1, E 1), *hazi* (N 2), *iarri* (M 1, N 1, E 1), *iauntzi* (N 1), *iauzi* (N 1, E 1), *inguratu* (N 1, E 1), *konzebitu* (M 1), *leheritu* (N 1), *piztu* (N 3)

Erazz ikusten da *-(r)en*-en adibideak anitez ugariago direla *Manual*-ean *Noelak* eta *Elizara*-n baino. Hau liburu honen bi ezaugarrietako batek azal lezake, edo agian biek batera: beste biak baino jasoago izatea eta beste biak baino, ustez, goiztarragoa.²¹

Hona hemen Etxeberrirenean maizenik bildu ditugun *-(r)en* atzizkidun aditzen gainerako erabiltzaile lapurtarrak *Euskal Klasikoen Corpusaren* (hemendik aurrera *EKC*) datuen arabera 1850 arte:

aitorturen (Leiz, Lg), *altxaturen* (Leiz, Lg), *bihurturen* (Hm, SP, Lg, Dh), *etorriren* (Leiz, SP, Lg), *harturen* (Leiz, Lg, Dh), *idukiren* (e- Leiz), *ikusiren* (Leiz, Lg, Mih), *laudaturen* (Leiz, SP), *mintzaturen* (Leiz, SP, Lg), *sentiturren* (-).²²

Agerian denez, ez dago Sarako eskolakoen artean hark bezainbeste *-(r)en* erabili duenik, eta oro har idazle lapurtarren artean ere ez dago besterik, zehazki nongoa den ez dakigun Larregi arte, Harizmendi saratarraren eta Mihura donibandarraren adibide bakanak salbu. Sekulako aldea dago datu hauen eta *hilen*-en datuen artean, azken hau beti baitoa *-n* amaieradunekin bat (Leiz, Mat, Harb, Ax, Hm, Arg, SP, Gç, Arbill, Urt, Ch, Lg, Brtc, Dh, He).²³ Nola interpretatu datuok? Esango nuke bi aukera baino ez direla: edo kostaldeko hizkeran aukeran zen ezaugarria, eta gainerakoek gehienbat muzin egin zioten erabiltzeari, edo ekialderagoko ezaugarria izanik ere Etxeberrik erabiltzea deliberatu zuen. Baldin eta, gorago iradoki legez, *-(ren)*-en erabileraren maiztasuna jasotasunarekin edota lehen obra izatearekin lotua balitz, batera zein bestera, Leizarraga izan bide zuen eredu. Hori da nire ustea, behintzat.

²¹ Ezaguna denez, galdua da aspaldi *Noelak*-en ustezko lehen argitalpena, 1645ekoan ageri diren eliz baimenen datan oinarriturik 1630 inguruan kokatu ohi duguna (Vinson 1891-1898: 15a-15b. zb.). Bestalde, egiantzekoa da oso Etxeberrik *Manual*-a baino arinago beste poesia liburu bat kaleratu izana, agian *Egunoroscoa* litekeena (Etxagibel 2014: 211).

²² Laburdurak (Leiz = Leizarraga izan ezik) *OEH*koak berak dira.

²³ *EKCK hilko*-ren adibide bat eta bakarra ematen du lapurteraz 1750 arte, Urteren *Ethorkia eta Ilkhitzea*-n (c. 1700; 1894).

Ekialde zabaleko ezaugarria da (Zuazo 2003: 198), berebat, **iron* aditz laguntzailea, gehienbat ahalera adierazteko erabilia erdialdeko **ezan*-en eta mendebaldeko *egin*-en lekuan. Ezaugarri hau Lapurdiko sortaldera iritsi iristen da gaur, baina ez kostaldera: Caminok (2004: 474) bildu datuen arabera, Nafarroa Beherean **ezan* eta **iron*, bietakoak erabiltzen dira: «izanen dira aldeak eremu batetik bestera erabileraz maiztasunean, baina **iro* errotik eratuak bederen, Nafarroa Behere guztian ageri dir[a] (...) eta baita Lapurdiko Aturrialdean Bardozen eta Beskoitzen ere; erdialdean ere ageri dira (Epelde 2003: 308)». Haatik, ezaguna da aspalditik Etxeberrik ere erabili zuela (Altuna 1981: 48, 44. oh.), Axularrek eta ez bezala. Partzipio prospektibotik atera ondorioaren arabera, pentsa genezake **iron* laguntzailea ere Etxeberrik Leizarragaren testuan ikasi zuela, aditz honen agerraldi guztiak (*Eliçarako dirot* bakar bat izan ezik) berriro ere *Manualean* biltzen baitira, *EKCn* egin behin-behineko bilketaren arabera: *diro* (4), *dirot* (3), *dirokezu* (1), *liro* (1), *niro* (1), *zirok* (1).

Halere, usteak erdia ustel izan ohi direnez, aski da *diro* formaren bila-keta xvii. mendeko lapurterara hedatzea Voltoirek ere adibide bat baduela egiaztatzeko: *ene onez osoquy plaçer doçuna* (sic) *eguyñ diroqueçula* (Lakarra 1999: 510). Beraz, ziurtzat eman dezakegu Ziburun orduan bizirik zela, Voltoirek eredu gabe bere kasa islatu baitzuen ikasi zuen euskara, dakigularik. Areago, Padillaren (2013a: 138) azterketaren arabera uste baino nahikoa hedatuago zegoen orduan **iron*, aipatuez gain bai baitira Hariz-mendi, Pouvreau eta Etxeberri Sarakoaren adibideak, eta hainbat lapurtar gehiagorenak xix. mendetik aitzina. Badirudi, bada, honek gezurtatzen duela ezaugarri hau Leizarraga eta Etxeberriren arteko loturaren froga garbi gisa.

Hala eta guztiz ere, sakonean bada ondorio interesgarriagorik. Leizarragaren hizkuntzaren oinarria nongoa ote eta honek aspaldi sortu duen eztabaidan (laburpen baterako, cf. Zulaika 1999: 45-53), jarrera zentzuzkoena Bonaparterena (1884) dela iruditu zait beti, alegia:

Quant à la nature du dialecte du Nouveau Testament, nous croyons avoir parfaitement bien démontré que c'est un dialecte labourdin éteint, quoique mêlé de souletin et de bas-navarrais. Il était probablement en usage à Briscous, patrie de Liçarrague, bien que cette localité appartienne maintenant au sous-dialecte bas-navarrais oriental de l'Adour. Il diffère aussi du bas-navarrais occidental, même de celui d'Ustaritz, qui représente la variété la plus rapprochée du labourdin. Ses formes verbales et nominales les plus caractéristiques (...) le rattachent au labourdin (Bonaparte 1884: 2)²⁴

²⁴ Hauek dira Bonapartek erabiltzen dituen kidetasunetako batzuk (Leiz = Leizarraga, L = lapurtera, Ust = Ustaritz, Bris = Briscous): *burua* (Leiz, L) vs. *buruya* (Ust, Bris), *naiz* (Leiz, L) vs. *niz* (Ust, Bris), *zara* (Leiz) *zara*, *zare* (L) vs. *zia* (Ust, Bris), *zaitu* (Leiz, L) vs. *zitu* (Ust, Bris), *zayo* (Leiz, L) vs. *zako* (Ust, Bris).

Honetaz iritzia eman duten anitzek ez bezala, Bonapartek bazuen kon-tuan bilakaera historikoa, hots, hizkuntza etengabe aldatuz doala, bai eta ezaugarrien lurralde hedadura ere. Beraz, ez bide zitzaion bururatuko, gero-koren bati bezala, Leizarragak *laborategiko hizkuntza* bat erabili zuela esa-tea. Eredurik ezean, zentzuzkoena da, eta zero hipotesia izan beharko litza-teke, Leizarragak zekien euskara izan zuela oinarri, beste mintzoetatik nahi beste forma erantsirik balitz ere. Ikusiak ikusirik, nago berraztertu beharko liratekeela Leizarragaren hizkuntzaren ekialdekotasunaz esan izan diren azal-keriak. Izan ere, **iron* bizirik aurkeztu berri dugu xvii. mendeko lapurteran. Zaharrago eta ekialderagokoxeago den Leizarragarenean are biziago egotea, bada, ez da harrigarria, eta ezin daiteke ekialde murrizteko ezaugarritzat har, alegia, ezin da Testamentuko *-ei* datibo pluralaren ordeaz *ABCn -er* erabili izanarekin batera aurkeztu, biak ala biak ekialdera begirako jarrera baten le-kuko bailiran: bata ikusi berri dugu egiantz osoz Beskoitzeko euskaratik ber-tatik jalgia dela;²⁵ besteari buruz, aldiz, Leizarragak berak «Çuberoa eta aldi-rietan» erabiltzen dela (*Decl* 1214) dio garbi.

3. Ondorioak

Historia datuen interpretazioan oinarritzen dela eta interpretazioak eten-gabe berrikusi beharrekoak direla gogoan harturik, aspaldiko bi hipotesiri heldu diegu, hots, Tartasen *Onsa*-ren argitaratze berankorriari eta Leizarraga-ren hizkuntz ereduaren erabateko porrotari.

Lanean zehar bildutako datu berriak —gehienak zahar-berriak egiazki— eta haietatik ateratako ondorio berriak birpasatu beharrean, labur beharrez, zilegi bekit interpretazio ausartago bat egitea, ospakizun baten testuinguruan egina izanik ausardia errazago barkatuko zaidalakoan. Onartua da gizaldi eta gizarte bakoitzak historiari buruzko bere galde-erantzun propioak izaten di-tuela, bere interpretazio moduak, azken batean. Hala bada, hemen jorratu-tako bi adibideek aditzera eman lezakete badela euskalarion artean azalpen dramatikoetarako halako jaidura bat. Arrazoiak ez dira falta euskararen histo-rian, esan gabe doa, baina beti txarrean jartzeak inoiz ondorioak makurraraz-ten dituela ikusi berri dugu.

Aipamenak

- Aldekoa, Iñaki. 2004. *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.
 Altuna, P. 1981. *Ioannes Etxeberri Ziburukoa. Manual devotioenezcoa (lehen zatia)*.
 Euskararen Lekukoak 3. Bilbo: Euskaltzaindia.

²⁵ Bidenabar, ondorio berera iritsi da Padilla (2013b: 343, 18. oh.) partizipio prospektiboari buruz.

- Altuna, Patxi. 1990. *Ioannes de Haraneder. Jesu Christoren Evangelio Saindua*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Arcocha, Aurélie & Joseba A. Lakarra. (2014). «Humanismo, reformismo e imprenta en vascuence (1545-1596)». Londres: Routledge.
- Barracough, Geoffrey. 1955. *History in a changing world*. Oxford: Blackwell.
- Blanco, Endika. 2014. *Euskal lexikoaren historiarako: ikerketak euskara arkaikoan*. Gasteiz: UPV/EHUko MAL argitaragabea.
- Bonaparte, Luis-Lucien. 1884. *Remarques sur certaines assertions de M.J. Vinson concernant la langue Basque*. Londres.
- Camino, Iñaki. 2004. «Nafarroa Behereko euskara». *FLV* 97, 445-486.
- Camino, Iñaki. 2008. «Nafarroa Behereko euskara zaharra». *ASJU* 42:1, 101-170.
- Carr, Edward Hallett. 1961. *What is History?*. Harmondsworth, Middlesex: Penguin Books.
- Darricarrère, Jean Baptiste. 1911. «Le livre basque intitulé *Onsa hilceco bidia*, Le moyen de bien mourir». *RIEV* 5:1, 14-47.
- Epelde, Irantzu. 2003. *Larresoroko euskara*. doktore tesia, UPV/EHU.
- Etzagibel, Javier. 2014. *Pouvrearen hiztegia testukritikaren eta metalexikografiaren argitan*. doktore tesia, UPV/EHU.
- Euskaltzaindia. 1997 [1987]. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskara Institutua. 2013. *Euskal Klasikoen Corpusa (EKC)*. UPV/EHU. [<http://www.ehu.es/ehg/kc>]
- Juaristi, Jon. 1987. *Literatura vasca*. Madril: Taurus.
- Knörr, Henrike. 1996. «Joannes Leizarraga». In G. Aulestia (arg.), *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*. Gasteiz: Sancho el Sabio Fundazioa. 115-138.
- Lafon, René. 1951. «La langue de Bernard Dechepare». *BAP* 7, 309-338.
- Lakarra, Joseba A. 1985. «Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko Sermoia (1737)». *ASJU* 19:1, 235-281.
- Lakarra, Joseba A. 1999. «*L'Interpret ou traduction du françois, espagnol & basque* (c. 1620): II. Elkarrizketak». *ASJU* 33:2, 493-568.
- Lamikiz, Xabier, Manuel Padilla & Xarles Videgain. 2014. *Othoi çato etchera. Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757)*. Baiona: Lapurdum (zenbaki berezia; argitaratzeko).
- Larramendi, Manuel de. 1745. *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*. Donostia: Bartholomé Riesgo y Montero. Faks. Donostia: Txertoa, 1984.
- Lécluse, Fleury. 1826. *Grammaire basque*, Baiona: L.M. Cluzeau.
- Le Goff, Jacques. 1997 [1977]. «Paradojas y ambigüedades de la historia». *Pensar la Historia. Modernidad, presente, progreso*. Barcelona: Paidós. 26-49.
- Leizarraga, Joannes de. 1571. *Jesu Christ gure Jaunaren Testamentu Berria. Othoizta ecclesiasticoen forma. Catechismea. Kalendrera. ABC edo Christinoen instructionea*. Rochellan: Pierre Hautin. Th. Linschmann & H. Schuchardt-en edizioaren (1900) faks., Euskaltzaindia: Bilbo, 1990.
- Mitxelena, Koldo. 1960. *Historia de la literatura vasca*. Madril: Minotauro.
- Mujika, Jose Antonio. 2002. *Euskal ortografiaren hastapenak Iparraldeko literaturan*. Bilbo: UPV/EHU.
- Olaizola, Juan María de. 1993. *Historia del Protestantismo en el País Vasco*. Iruña: Pamiela.

- Oyharçabal, Beñat. 1996. «Hitz eratorriak Matererren *Dotrina Christiana* delakoan (1617)». *Lapurdum* 1, 37-71.
- Padilla, Manuel. 2013a. «Euskararen laguntzaile ahantziaz: *iron aditzaren historia». *FLV* 116, 131-169.
- Padilla, Manuel. 2013b. «Non-Finite Verbal Morphology». In M. Martínez Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*. Frankfurt am Main: Peter Lang. 323-357.
- Pikabea, Josu. 1993. *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak*. Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoa Donostia Kutxa.
- Ruiz Arzalluz, Iñigo. 1987. «Notas sobre algunas traducciones vascas del Nuevo Testamento». *ASJU* 21:3, 709-726.
- Salaberri Muñoa, Patxi. 1997. *Axularren prosa Erretorikaren argitan*. doktore tesia, UPV/EHU.
- Salaberri Muñoa, Patxi. 2000. «Axularren testu-zorrak». *FLV* 84, 193-209.
- Salaberri Muñoa, Patxi. 2002. *Iraupena eta lekukotasuna*. Donostia: Elkarlanean.
- Sarasola, Ibon. 1997. «Euskal hitz altxorraz», *ASJU* 1997: 2, 617-642.
- Schuchardt, Hugo. 1900. «Prólogo», in *Leizarraga 1571*, 127-214.
- Tellechea-Idígoras, J. Ignacio. 1966. «Nota autógrafa del P. Larramendi a la copia que hizo del Nuevo Testamento de Lizarraga. Advertencia». *Colección de documentos néditos para la Historia de Guipúzcoa* 7. Donostia: Gipuzkoako Foru Al-dundia. 175-176.
- Urgell, Blanca. 1998. «*Hiztegi Hirukoitza* eta *Diccionario de Autoridades* erkatuaz (II): sarreraren edukia». *ASJU* 32:2, 365-414.
- Urgell, Blanca. 1999. «Euskal idazle klasikoaren arteko eragin eta zubiak». UEUn emandako hitzaldi argitaragabea.
- Urgell, Blanca. 2000. *Hiztegi Hirukoitza-ren osagaiez*. doktore tesia, UPV/EHU.
- Urgell, Blanca. 2001. «Euskal formen aurkezpena Larramendiren hiztegiaren». *ASJU* 35:1, 107-183.
- Urgell, Blanca. 2005. «Larramendiren euskal liburuak 1745 arte: testu bibliografiarantzko hurbilketa bat». *Lapurdum* 10, 247-286.
- Urkizu, Patrizio. 2000. *Historia de la literatura vasca*, Madril: UNED.
- Urquijo, Julio de. 1909. «Las citas del Diccionario de Pouvreau». *RIEV* 3, 504-519.
- Villasante, Luis. 1979. *Historia de la Literatura Vasca*, Oñati: Aranzazu.
- Vinson, Julien. 1891-1898. *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Paris: J. Maisonneuve. Faks. (*ASJU*ren Gehigarriak 9), Donostia: «Julio de Urquijo» Mintegia & GFA, 1984.
- Vinson, Julien. 1910. «Le Vocabulaire de Pouvreau». *RIEV* 4, 139-141.
- Wagensberg, Jorge. 1998. *Ideas para la imaginación impura*, Bartzelona: Tusquets.
- Zuazo, Koldo. 2003. *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- Zulaika, Esther. 1999. *Ioanes Leizarragaren aditza*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.